

2/2013 FORU ARAUA, otsailaren 27koa, Ondarearen gaineko zergari buruzkoa (BAO Martxoaren 4koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek Ondarearen gaineko zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Araua onartu dutela 2013ko otsailaren 27an, eta hura aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

ONDAREAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO OTSAILAREN 27KO 2/2013 FORU-ARAUA

HITZAURREA

Ondarearen gaineko Zerga indarrean egon den bitartean, zalantzan jarri izan da ea zer betekizun duen zerga horrek zerga-sistemetan, hala zuzentasunari nola eraginkortasunari dagozkion arrazoiengatik. Zuzentasunari dagokionez, nola zerga hori pertsona fisikoek metaturiko ondarearen gainean ezartzen den, zergapetze bikoitza eragiten da, kontuan harturik ezen aberastasun metatua aurretik ere zergapetua izan dela, sortu den momentuan.

Eraginkortasunari dagokionez, berriz, gai zergagarriaren definizioak hutsune handiak zituen, arazo larriak sortzen baitzituzten bai zerga-egitatea mugatzeak bai hura balioztatzeak.

Eskasia horiek ez zioten utzi tributuari bere ezaugarri diren helburuak betetzen: alegia, zerga-sistemaren progresibotasunari laguntzea, eta zerga-sistemaren zentsu- eta itxitura-tresna gisa funtzionatzea, norbanakoen eta familien aberastasun-iturrien kontrolaren zerbitzura.

Hori dela eta, 2009rako zergen arloko neurriak onartu zituen 2008ko abenduaren 10eko 7/2008 Foru Arauak derogatu egin zuen Ondarearen gaineko Zergari buruzko 1991ko abenduaren 17ko 11/1991 Foru Araua. Derogazioak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera sortu zituen ondorioak.

Ordutik hona, ekonomiaren eta finantzen egoerak inoiz ikusi gabeko krisi bat jasan du mundu guztian, eta horrek gomendagarri egin zuen, behin-behineko neurri gisa, 2011n eta 2012an berriro ezartzea lehen indargabeturiko zerga. Horretarako, 2011ko abenduaren 28ko 4/2011 Foru Araua eman zen, aldaketa nabarmenak zekartzana aplikazio-eremu subjektiboaren zein haren zerga-karga mailaren definizioan.

Egoera ekonomikoaren bilakaerak, noiz eta krisiak gastu publikoari sakrifizio itzelak jasanarazten baitizkio (gainera, gizartean behar gehien duten klaseek jasan behar izaten dituztenak), beharrezko bilakatu du bere horretan mantentzea ondare handiagoa duten zergadunei eskatzen zaien solidaritate-ahalegina. Hala, bada, ikusirik 2012ko abenduaren 31n bukatzekoa dela 4/2011 Foru Arauaren indarraldia, beste foru arau bat eman behar da, berriz sartuko duena Ondarearen gaineko Zerga Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-sisteman.

Hala ere, zerga hori sisteman berrezarriko bada, zuzendu egin behar dira aurreko erregulazioan hautematen ziren akats teknikoak eta zuzentasunik eza. Horretarako, berriz definitu behar dira zergagaita eta haren tributazioaren baldintza formalak eta materialak, hartara zergak benetan lagun dezan tributu-sistemaren justizia, progresibotasuna eta zuzentasuna areagotzen, eta ez dezan zigortu ekoizpen-jardueren bidez sortzen den aberastasuna. Gainera, tresna eraginkorra izango da ihes fiskala desagerrarazteko eta zerga-oinarriak egoki kontrolatzeko, batetik, eta, bestetik, eragotzi egingo du ordenamendu juridikoak debekatzen dituen zergapetze gehiegizkoen arriskua.

Horretarako, batetik, beste erregulazio bat ematen zaie ekonomia-jarduerak egiten dituzten erakundeetako partaidetzak dituzten salbuespenei. Bestetik, arau komun batzuk ezartzen dira, zergaren zerga-oinarria zehazterakoan ondasun higiezin guztiei aplikatu beharrekoak. Eta,

azkenik, konfiskazioaren aurkako klausularen aplikazioa indartzen da; izan ere, kuotaren murrizpena egin daiteke, eta baterako muga bat jartzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuotetarako. Gainera, zenbait arau ere jartzen dira indarrean, klausula hori bakarrik erabil dezaten hura aplikatuz babestu gura diren ondare-errealitateek, eta ez beste batzuek.

I. KAPITULUA. IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA.

1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.

Ondarearen gaineko Zergak izaera pertsonala eta zuzeneko du, eta zergadunen ondare garbia zergapetzen du, foru arau honetan ezartzen denaren arabera.

Zerga honetan, zergadunaren titulartasunpeko eduki ekonomikodun ondasun-eskubideen multzoa izango da haren ondare garbia, baina, hura kalkulatzeko, kendu egingo dira ondasun-eskubideon balioa gutxitzen duten zamak eta kargak, eta deduzitu egingo dira zergadunak aurre egin beharreko zor eta betebeharrak.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Bat. Foru arau honetan xedatzen dena honako zergadun hauei aplikatuko zaie:

- a) Betebehar pertsonalaren zioz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela-eta Bizkaiko Foru Aldundiaren zergadun diren pertsona fisikoak; zergak haien ondare garbi osoa kargatuko du, edozein dela ere tributatu behar duten ondare-elementuok dauden lurraldea.
- b) Betebehar errearen zioz, Espainiako lurraldean egoitza ez duen pertsona fisiko oro izango da zerga honen zergadun, baldin eta Espainiako lurraldean finkatuta dauden ondasun eta eskubide batzuen titular bada eta baldin eta, ondasun-eskubideetatik gehienak euskal lurraldean egonik, Bizkaiko Lurralde Historikoan finkatuta dauden balioa gainerako lurralde historiko bakoitzean daudenena baino handiagoa bada.

Letra honetan ezartzen dena betetzeko, ondasun-eskubideak lurralde jakin batean finkatutzat joko dira, baldin eta lurralde horretan kokatuta badaude, lurralde horretan erabili badaitezke edo lurralde horretan bete behar badira.

Espainiako lurraldean kokatuta dauden eskubide edo ondasunengatik soilik eskatuko zaio zergadunari zerga, foru arau honetako 11. artikuluko Lau atalean xedatzen dena kontuan hartuta.

- c) Beren azken egoitza Bizkaian izan duten baina jada Espainiako lurraldean egoitza ez duten pertsona fisikoak, baldin eta Bizkaian tributatzea hautatzen badute betebeharrak pertsonalaren arabera. Aukera horretaz baliatzeko, zerga horri dagokion autolikidazioa aurkeztu behar du Bizkaiko egoiliar izateari uzten dioten lehenbiziko ekitaldian.
- d) Espainiako Estatuak atzerrian dituen ordezkari eta funtzionarioak zein atzerriko organismo, erakunde edo estatuak Espainian dituztenak zerga honen menpekoak dira betebehar pertsonal edo errearen zioz, eta, hori erabakitzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan halako zergadunentzat ezartzen dena hartuko da aintzat.

Bi. Ohiko egoitza zein den zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezartzen dena hartuko da aintzat.

Hiru. Testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsien ondare garbiari ere -ahalordea erabili bitartean- foru arau hau aplikatuko zaio, kontuan harturik zer ezartzen duen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauak, zeinak Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen baitu Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-sistema.

3. artikulua. Nazioarteko tratatu eta hitzarmenak.

Foru arau honek xedatzen duena gorabehera, nahitaez bete beharko da Espainiako barne ordenamenduan sartzen diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatzen dena.

II. KAPITULUA. ZERGA-EGITATEA.

4. artikulua. Zerga-egitatea.

Zerga honen zerga-egitatea hau da: zergaren sortzapen-unean, zergaduna foru arau honen 1. artikuluan aipatzen den ondare garbiaren titularra izatea.

Halaber, aurreko sortzapen-unean zergadunarenak ziren ondasun-eskubideak ere haren ondarekotzat joko dira, salbu eta ondare-eskubideok eskualdatu edo galdu egin dituela frogatzen bada.

5. artikulua. Ondasun eta eskubide salbuetsiak.

Zerga honetatik salbuetsita daude honako hauek:

Bat. Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak, babes ertaina edo berezia dutenak Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera.

Bi. Batetik, Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak, baldin eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipatzen den Interes Kultureko Ondasunen Erregistro Orokorrean edo Ondasun Higigarrien Inbentario Nagusian inskribatuta badaude. Bestetik, lege horren bigarren xedapen gehigarrian adierazten diren ondasunak, baldin eta Kultura Ministerioak interes kultureko ondasuntzat kalifikatu baditu eta dagokien erregistroan inskribatuta badaude.

Hala ere, arkeologi aldean eta leku edo multzo historikoen kasuan, ez dira salbuetsita egongo mugatze-perimetroaren barruan kokatuta dauden ondasun higiezin guztiak, baizik eta baldintza hauek betetzen dituztenak soil-soilik:

- Arkeologi aldeetan, 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 20. artikuluan jasotzen den hirigintza-plangintzako tresnan babes berezikotzat sartzen direnak.
- Leku edo multzo historikoetan, berrogeita hamar urte edo gehiago duten eta Hirigintza Plangintzarako Araudiko 86. artikuluan ezartzen den katalogoan babes erabatekoduntzat sarturik daudenak, 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 21. artikuluan ezartzen diren baldintzetan.

Hiru. Autonomia-erkidegoen ondare historikoa osatzen duten ondasunak, baldin eta erkidegoetako arauetan ezarritakoaren arabera kalifikatu eta inskribatu badira.

Lau. Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 26. artikuluan 4. apartatuan xedaturikoaren ondorioetarako ezartzen diren kopuruak baino balio txikiagoa duten artelanak eta antzinako gauzak.

Bost. Batetik, foru arau honetako 21. artikuluan adierazten diren arte-objektuak eta antigoaleko objektuak, baldin eta euren jabeek, gutxienez hiru urterako, gordailu iraunkorrean laga badizkiete, jendaurrean erakutsi ditzaten, museoei edo irabazteko helbururik gabeko kultur erakundeek, baina betiere objektuok gordailupean dauden bitartean; bestetik, artisten beren obra, autorearen ondare gisa dirauen bitartean.

Sei. Etxeko arreoak: hots, zergadunaren efektu pertsonalak eta etxeak, etxe tresneria eta zergadunaren erabilera partikularreko gainerako ondasun higigarriak, foru arau honetako 20. eta 21. artikuluetan aipatzen diren ondasunak salbu.

Zazpi. Tresna hauetako eduki ekonomikodun eskubideak:

- a) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen kasuan, bazkide osoek edo arruntek erakundeotan dituzten eskubide kontsolidatuak eta onuradunek dituzten eskubide ekonomikoak.
- b) Partaideen eskubide kontsolidatuak eta pentsio-plan bateko onuradunen eskubide ekonomikoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauak, enpleguko pentsio-funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzkoak, aipatzen dituenak barne.
- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak aipatzen dituen aurreikuspen-plan aseguratuei ordaindutako primei dagozkien eduki ekonomikodun eskubideak.
- d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak aipatzen dituen enpresen gizarte-aurreikuspeneko planei zergadunak egindako ekarpenei dagozkien eduki ekonomikodun eskubideak, hartzailearen kontribuzioak barne.
- e) Batetik, zergadunak aseguru kolektiboko kontratuetan ordaindutako primen ondoriozko eskubide ekonomikodun eskubideak, baldin eta kontratuok ez badira enpresek eraturako gizarte-aurreikuspeneko planak, baina tresna bat badira enpresek haien bidez bideratzeko pentsioak direla-eta beren gain hartu dituzten konpromisoak, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko lehenengo xedapen gehigarrian eta lege hori garatzeko araudian xedatutakoaren arabera. Bestetik, enpresariak aseguru kolektiboko kontratu horiei ordaindutako primetatik datozen eduki ekonomikodun eskubideak.
- f) Mendetasuna estaltzen duten aseguru pribatuei (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 70.1.7 artikuluan aipatzen dira) ordaindutako primei dagozkien eta eduki ekonomikoa duten eskubideak.

Zortzi. Jabetza intelektual zein industrialari darizkion eskubideak, egilearen ondarean dauden bitartean eta, jabetza industrialaren kasuan, ekonomia-jardueri atxikita ez badaude.

Bederatzi. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluan xedatutakoa dela bide etekinak salbuetsita dituzten baloreak.

Hamar. Batetik, pertsona fisikoek beren jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezko dituzten ondasunak eta eskubideak; bestetik, antolatutako merkatuetan kotizatzen duten zein ez duten erakundeetako kapital- edo ondare-partaidetzen jabetza osoa, haien jabetza soila eta haien gaineko biziarteko gozamen-eskubidea, betiere foru arau honen 6. artikuluan ezarritako baldintzak betez gero.

Hamaika. Zergadunaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko zortzi zenbakian definitzen den bezala: gehieneko zenbatekoa 400.000 euro izango da.

Hamabi. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta eskuratzen diren egunetik hasita bost urte irauten badute zergadunaren ondarean. Zergadunak aipatutako mantentze-epaia betetzen ez badu, edo funtsek martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen ez badituzte, salbuespena galduko du, eta zergadunak bidegabe irizitako salbuespenak birjarri beharko ditu dagozkion ekitaldietan, eta ondoriozko zenbatekoak ordaindu beharko ditu, berandutze-interesak sortuz.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen titular den zergaduna aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu baino lehen hiltzen bada.

Hamairu. Jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa sustatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 5. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, dagokionaren arabera, zergadunaren ondarean haiek eskuratu eta egun horretatik bost urtez geratzen badira. Zergadunak aipatutako mantentze-epaia betetzen ez badu edo funtsek martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 5. edo 6. artikuluetan aurreikusitako baldintzak betetzen ez badituzte, salbuespena galduko du, eta zergadunak bidegabe irizitako salbuespenak birjarri beharko ditu dagozkion ekitaldietan, eta ondoriozko zenbatekoak ordaindu beharko ditu, berandutze-interesak sortuz.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen titular den zergaduna aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu baino lehen hiltzen bada. Zergadunak partaidetza horiek zeharka baditu, zuzeneko edo zeharkako partaidetza duen sozietateen bidez, entitate horien kapitalaren 100eko 5etik gutxienez, zerga honen zerga-oinarriaren murrizketa aplikatzeko eskubidea izango du, zenbaki honetan aipatzen diren Europako funtsetako partaidetzak zein sozietatetan egon eta sozietate horretako partaidetza- ehunekoa partaidetza horien balioarekin biderkatzearen emaitzaren balioidea den zenbatekoan, eta murrizketa horrek ez du ekarriko zerga-oinarria negatiboa izatea.

Hamalau. Atzerrian dauden ondasunak eta eskubideak, baldin eta ondasun-eskubideen titularrak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56 bis artikuluan lekualdatutako langileentzat ezartzen den araubide berezia aplikatu duten zergadunak badira.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik izango foru arau honetako 34. artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko ondasun eta eskubide horiekin.

Zenbaki honetan ezarritakoa berdin aplikatuko zaie araubide berezi hau aukeratzen duen zergadunaren ezkontideari, 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bikotekideari eta zergadunaren familia-unitateko kideei (familia-unitatea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan aipatzen da), baldin eta lekualdatzearen ondorioz Bizkaian egoitza fiskala hartzen badute eta Espainiako lurralderako lekualdaketa gertatzen den zergaldiaren aurreko bost urteetan Espainiako egoiliarak izan ez badira.

Hamabost. Zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatu ahal dien akzio eta entitateetako partaidetzak, ondorio horietarako aipatutako aginduaren 3. eta 7. paragrafoetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan 6. paragrafoan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Hamasei. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56 quater artikuluan aipatzen diren akzioak, partaidetzak edo eduki ekonomikoko eskubideak.

Hamazazpi. Parke Nazionaleri buruzko abenduaren 3ko 30/2014 Legea, edo antzeko moduan aprobetxamendua murrizten duen beste edozein, edo dagokion araudi autonomikoa aplikatzearen ondoriozko ingurumen-mugek eragindako lursailak eta naturaguneak, landare-formazioek karbonoa xurgatzeko gaitasuna sustatzen laguntzen dutela uste baita, garapen garbiko proiektuen eta Kiotoko Protokoloa eta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa aplikatzearen eremuan.

Aurreko salbuespenak, era berean, jabetza osoa, jabetza soila edo biziarteko gozamen-eskubidea hartuko ditu, merkatu antolatuetan kotizatzen ez duten entitateen kapitaleko edo ondareko partaidetzen gainean, baldin eta haien aktiboa, gutxienez zenbatekoaren %85, aurreko paragrafoan aipatutako ingurumen-mugek eragindako ondasunez osatuta badago.

6. artikulua. Ekonomia-jarduerei loturiko ondasunak eta partaidetza jakin batzuk salbuesteko baldintzak.

Bat. Zergatik salbuetsita egongo dira pertsona fisikoek beren jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezko dituzten ondasunak eta eskubideak, baina, baldin eta zergadunak berak egin ohi badu jarduera hori eta horixe bada bere errenta-iturri nagusia. Halaber, salbuetsita daude senar-emazteen edo (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikote bateko bi kideen ondasunak eta eskubideak, baldin eta senar-emazte edo izatezko bikoteko kide bietako baten jarduera ekonomikoan erabiltzen badira eta atal honetako baldintzak betetzen badira.

Jarduera ekonomiko bat zergadunaren errenta-iturri nagusizat hartuko da, baldin eta zergadun horren pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren %50, gutxienez, hain zuzen ere, jarduera ekonomikoen etekin garbietatik badator, baina kontuan izanik aurreko horretarako ez direla konputatuko ez artikuluko honetako Bi atalean aipatzen diren erakundeetan egindako zuzendaritza-funtzioengatik lortutako ordainsariak, ez erakunde horietan partaidetza izateagatik lortutako beste edozein ordainsari.

Baldin eta zergadun batek ekonomia-jarduera bi edo gehiago egin ohi baditu berak zuzenean, salbuespena jarduerari loturiko ondasun eta eskubide guztientzat izango da, eta zergadunaren errenta-iturri nagusia, aurreko paragrafoan xedaturikoari dagokionez, jarduera horien guztien etekinak izango dira.

Bi. Zergatik salbuetsita egongo dira antolatutako merkatuetan kotizatzen duten zein ez duten erakundeetako kapital- edo ondare-partaidetzen jabetza osoa, haien jabetza soilak eta haien gaineko biziarteko gozamen-eskubidea, baldintza hauek betetz gero:

- a) Erakundearen jarduera nagusia ezin da izan ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 21eko 3/1996 Foru Arauko 14. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, erakunde horrek ez baditu betetzen beraren aktiboaren erdia balorez osatuta dagoela edo jarduera ekonomikoei lotuta ez dagoela pentsatzeko ezarritako baldintzak, bada, orduan, ulertuko da erakunde horrek ez duela kudeatzen ondare higigarri edo higiezin bat eta, beraz, ekonomia-jarduera bat egiten duela.

Erakunde hori beste erakunde batzuetako partaide ere badenean, baldintza batzuk bete behar dira ulertzeko erakunde horrek ez duela kudeatzen ondare higigarri bat. Baldintzok, hain zuzen ere, hauek dira: lehenengo, kasuan kasuko erakunde horrek beste erakundeetako bakoitzaren boto-eskubideen %5, gutxienez, izan behar du zuzenean; bigarren, erakunde horrek baliabide materialak eta giza baliabideak egoki antolatuz zuzendu eta kudeatu behar ditu partaidetzak, eta betiere partaidetutako erakundeen jarduera nagusia ezin da inola ere izan ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa, aurreko lerroaldean zehazten diren baldintzetan.

- b) Erakundea sozietatea denean, ezin dira gertatu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluan ezarritako egoerak.
- c) Zergadunak erakundearen duen partaidetza, gutxienez, %5ekoa izan behar da, beraren partaidetza soilik konputatuta. Edo %20koa, beste kasu hauetan: beraren ezkontidearena, izatezko bikotekidearena (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako izatezko bikotea bada), aurrekoena, ondorengoena edo bigarren graduako albo-ahaideena ere konputatuta (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke).

Letra honetan ezarritako baldintza betetzat joko da, baldin eta, familia-taldeko kideen arteko enpresa-kudeaketako ondorengotza-prozesuen ondorioz, aurreko paragrafoan aipatutako pertsonaren baten edo batzuen partaidetza-ehunekoa murriztu bada, edo partaidetza hori geroagoko mailako alboetara eskualdatu bada, betiere paragrafo honetan aipatutako pertsonen partaidetza guztiak edukitzera bideratutako enpresa-talde baten bitartez geratzen badira, azken entitate horrek paragrafo honetako a) eta b)

letretan ezarritako baldintzak betetzen dituen enpresa-taldeko entitate nagusiaren kapitalean %25etik gorako partaidetza bada eta paragrafo honetan aipatutako pertsonetako batek hurrengo d) letran aurreikusitako baldintza betetzen badira. Hala denean, salbuespena aplikatuko zaie paragrafo honetan aipatzen diren pertsona guztiei.

- d) Zergadunak erakundearen benetan burutzea zuzendaritza-funtzioak, eta horregatik jasotzen duen ordainsaria ekonomi jarduerengatik eta norberaren lanarengatik dituen etekin guztien %50 baino gehiago izatea.

Aurreko kalkulua egiteko, zergadunak ekonomia-jarduerengatik eta norberaren lanarengatik dituen etekinen barruan ez dira sartuko artikuluan honen Bat atalean aipatzen diren ekonomia-jardueren etekinak. Zergadunak erakundearen duen partaidetza aurreko letran aipatutako pertsonaren batekin edo pertsona batzuekin batera badu, gutxienez ahaidetasun-taldeko pertsona batek bete behar du zuzendaritza-funtzioei eta hargatik lortutako ordainsariei buruz bertan esaten dena. Hala ere, taldeko pertsona guztiek izan dezakete salbuespenerako eskubidea.

Zergadun bat zenbait erakunderen partaidetzen titularra bada zuzenean, eta erakunde horietan aldi berean suertatzen badira atal honetan aurreikusitako baldintzak, letra honek aipatzen duen zenbatekoaren ehuneko bereiz hartuko da erakundeotako bakoitzean. Hala bada, erakunde bakoitzean betetako zuzendaritza-funtzioen ordainsaria zergadunaren lanaren eta ekonomia-jardueren etekinen kopuru guztian zer portzentaje den zehazteko, ez dira kontuan hartuko beste erakundeetan zuzendaritza-funtzioetan jardutetik sortzen diren etekinak.

Honako kargu hauek joko dira zuzendaritza-funtziotzat, eta ezin gezurtatuzko eran egiaztatu beharko dira, kasuan kasuko kontratu edo izendapenaren bitartez: presidentea, zuzendari nagusia, gerentea, administratzailea, sailen zuzendariak, aholkulariak eta Administrazio Kontseiluko nahiz haren pareko administrazio-organoetako kideak, baldin eta karguotan jarduteak berekin badakar enpresaren erabakietan esku hartzea.

Hurrengo sei zenbakian ezarritakoa gorabehera, salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioaren zati bati (foru arau honetako 17. eta 18. artikuluan ezarritako erregelen arabera zehaztuko da balio hori): hain zuzen ere, ekonomia-jarduera egiteko beharrezkoak ez diren aktiboen balioari dagokion zatia, jardueraren ondorio ez diren zorren zenbatekoa kenduta. Erakunde baten aktiboen balioa, eta berdin haren zorrena, erakundearen kontabilitatetik eta foru arau honen 17, 18 eta 27. Hiru artikuluetan jasotako erregelak aplikatuztik ondorioztatuko da, baldin eta kontabilitateak zehazki islatzen badu erakundearen ondare-egoera. Halako kontabilitaterik ez bada, ordea, foru arau honetan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira balioak.

Hiru. Artikulu honetan aipatzen diren ondare-gaien titularra adingabe bat edo ezgaitu bat denean, artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzat jotzeko, titularron legezko ordezkariak bete beharko dituzte.

Lau. Artikulu honek xedatzen duena betetzeko, aktibo bat ekonomia-jarduera bat garatzeko beharrezkoa dela joko da, baldin eta jarduera horri afektatuta badago, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluan ezartzen denaren arabera. Dena dela, salbuespena egongo da artikuluan horren 1. zenbakiko c) letraren azken tartekian aurreikusten diren aktiboak direla-eta, zeren aktiboak ekonomia-jarduerari atxikirik egon ahal izango baitira.

Foru arau horretako 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 31.3 artikuluan aipatzen diren aktiboen kasuan, manu horiek aktiboan gastuak kengarritzat jotzen dituzten hein berean joko dira afektatutzat.

Jarduera ekonomiko bat egiteko beharrezkoak ez diren aktibotzat hartuko dira, eta, beraz, jarduera ekonomikoei lotutakotzat hartuko dira eskuratze-prezioak hain zuzen ere entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa gainditzen ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoetatik badatoz eta urtean bertan nahiz aurreko azken 10 urteetan lortutako

mozkinen zenbatekoaren muga izanik. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatzeagatik beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuek ezin izango dute aktibo osoaren %75 gainditu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera ekonomikoen ondoriozko irabazien parekotzat hartuko dira Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 14. artikulua 2. apartatuaren a) paragrafoaren azken gidoian aipatzen diren baloreen ondoriozko dibidenduak, baita partaidetza horien eskualdatzeetan lortutako gainbalioak ere, baldin eta entitate partaidetuak lortutako diru-sarreraren 100eko 80, gutxienez, jarduera ekonomikoek sortzen badituzte.

Bost. Artikulu honetan garatzen den salbuespena aplikagarri izan dadin bete beharreko betebeharrak eta baldintzak zergaren sortzapen-uneari dagozkio, batez besteko plantillari dagokionez hurrengo sei zenbakiko a) eta b) letretan ezartzen dena izan ezik.

Sei. Honako kasu hauetan, ez da inola ere aplikatuko salbuespena:

- a) Aurreko Bat atala aplikatuz salbuetsita dauden ondasun higiezinaren kasuan, baldin eta ondasunok laga egin badira edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira (errentamendua, azpierrementamendua, eskubideak eratzeko edo lagatzeko, edo haiek erabiltzeko edo lupertzeko ahalmenak), ondasunon izendapena edo izaera edozein dela ere, salbu eta ondasunok higiezinaren errentamendurako ekonomia-jarduera bati atxikita badaude eta zergadunak, gutxienez, urtero batez beste bost langile baditu soldatapean jarduera horretarako lanaldi osoan enplegatuta eta jarduera horretarako dedikazio eskusiboarekin. Horretarako, ez dira konputatuko zergadunarekin artikulu honetako Bi ataleko c) letran aipaturiko harremana duten enplegatutak, ez eta Sozietateen gaineko Zergaren 42. artikulua arabera lotutako pertsonatzat jotakoak ere.
- b) Partaidetzen baliotik jarduera ekonomikoekin lotuta ez dauden ondasun higiezinari dagokien zatia, eta aurreko bigarren apartatuan aipatzen diren partaidetzen baliotik ondasun higiezinari dagokien zatia, foru arau honen 18. artikulua lehen apartatuaren azken paragrafoan ezartzen denarekin bat, ondasun horiek erabiltzen badira lagatzeko edo haien gaineko eskubide errealak (errentamendua, azpierrementamendua, eskubideak eratzeko edo lagatzeko, edo haiek erabiltzeko edo lupertzeko ahalmenak) eratzeko, ondasunon izendapena edo izaera edozein dela ere, salbu eta ondasunok higiezinaren errentamendurako jarduera ekonomiko bati atxikita badaude eta zergadunak, gutxienez, urtero batez beste hamar langile baditu soldatapean jarduera horretarako lanaldi osoan enplegatuta eta jarduera horretarako dedikazio eskusiboarekin. Horretarako, ez dira konputatuko zergadunarekin artikulu honen bigarren apartatuaren c) letran aipaturiko harremana duten enplegatutak, Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikulua arabera lotutako pertsonatzat jotakoak ere.

Plantillako batez besteko langile kopurua kalkulatzeko honako hauek eduki behar dira kontuan: langileek aurreko paragrafoan ezarritako betekizunak bete behar dituzte, zergadunak kapitalean gutxienez % 25eko partaidetza daukan entitate batean egon behar dira enplegatuta, eta partaidetzak artikulu honetan ezarritako betekizunak bere behar ditu. Ildo honetatik, batez besteko plantilla kalkulatzeko kontuan hartu beharreko entitateak zehazteko ez beste ezertarako, bigarren apartatuaren a) eta b) letretan ezarritako betekizunak zergadunak zuzenean zein zeharka partaidetza daukan entitate guzti-guztietan bete behar dira, eta bigarren apartatuaren d) letran ezarritako betekizuna zergadunak zuzeneko partaidetza daukan entitateetan soilik bete behar da.

Hala ere, eskubide errealak lagatzeko edo eratzeko eragiketa horiek Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo entitateen artean egin badira, edo talde bateko kide diren entitateen artean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 24.3 artikuluan xedatutakoa bete behar da.

Letra honetan zehazten den salbuespena ez zaie aplikatuko Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren VII. tituluaren VIII. kapituluaren VIII. artikuluan ezarrita dagoen araubide berezia aplikatzen duten entitateetako partaidetzei, foru arau horren 115. artikuluko 1. apartatuan arautzen diren kasuetan.

- c) Aurreko Bi ataleko partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei eta foru arau honen 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontziei dagokien zatiaren kasuan ere ez da aplikatuko, foru arau honen 18. artikuluaen Bat ataleko azken lerroaldean ezartzen denarekin bat.

Letra honetan zehazten den salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei dagokien zatiari, zergadunak boto-eskubideen %5, gutxienez, badu eta partaidetzok baliabide materialak eta giza baliabideak egoki antolatuz zuzendu eta kudeatzen baditu.

- d) Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak.

Zazpi. Artikulu honetako aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, zerga honetan halaber dago salbuetsita zergadunak zerbitzuak ematen dizkien erakundeetako kapitalaren edo ondarearen gaineko partaidetzen jabetza osoa (erakundeok merkatu antolatuetan negoziatuak izan zein ez), zerbitzuongatik jasotzen den ordainsaria lanaren etekina denean hartzailearentzat zein jarduera ekonomikoen etekina denean hartzailearentzat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, erakundeak bete egin beharko dituzte artikulu honetako Bi zenbakiko a) eta b) letretan ezarritako betekizunak eta, gainera, zergadunak partaidetza dueneko erakundetik zergadunak berak lortzen dituen lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinak bere errenta-iturri nagusia izan behar dira, hots, gutxienez lortzen dituen lanaren edo jarduera ekonomikoen etekin guztien %50ekoa izatea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Salbuespena aplikatuko zaie bai zergadunak zerbitzuak ematen dizkion erakundeko kapitalaren edo ondarearen gaineko partaidetzei bai erakunde hori parte den sozietate- taldeko gainerako erakundeetako halako partaidetzei; horretarako, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan definitutakoaren arabera izango dira sozietate-taldeak.

Partaidetutako erakundeak ez badu bigarren mailako merkatu antolatu baten kotizatzen, artikulu honetako Sei zenbakian ezarritako murriztapenak aplikatuko dira.

Baldin eta ezkontzaren edo (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako) izatezko bikotearen ondasun-eraentza aplikatuz, partaidetzak erkideak badira ezkontide bientzat edo izatezko bikoteko kide bientzat, biek aplikatu ahal izango dute zenbaki honetan ezarritako salbuespena, nahiz eta bietako batek bakarrik bete bigarren paragrafoan ezartzen diren betekizunak.

Zortzi. Zerga honetatik salbuetsita egongo dira, halaber, artelanak eta zaharrikak dituzten entitateen kapital edo ondareko partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko gozamen eskubidea, baldin eta entitate horiek, gutxienez hiru urtez, gordailu iraunkor moduan lagatzen badizkiete museoei edo irabazteko asmorik gabeko kultur entitateei jendaurrean erakusteko, gordailupean dauden bitartean. Apartatu honetan arautzen den salbuespena ondasun horien balioaren eta entitate partaidetuaren aktibo osoaren arteko proportzioari dagokion balio zatiari aplikatuko zaio.

III. KAPITULUA. ZERGADUNAK.

7. artikulua. Zergadunak.

Zergadunak hauek dira: foru arau honen 2. artikuluko Bat atalean aipatzen diren pertsona fisikoak.

8. artikulua. Espainiako egoiliar ez diren zergadunen ordezkariak.

Bat. Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren zergadunek, hots, aurreko 2. artikuluko Bat ataleko b) letran aipatutakoek, egoitza Bizkaian duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute euren ordezkaria izan dadin Zerga Administrazioaren aurrean zerga hau dela-eta dituzten betebeharretan, baldin eta establezimendu iraunkorraren bitartez badihardute edo baldin eta, Espainiako lurraldean duten ondarearen kopurua eta ezaugarriak kontuan hartuta, Zerga Administrazioak hala eskatzen badie. Gainera, izendapen hori (behar bezala egiaztatuta) jakinarazi egin behar dute, zergaren autolikidazioa egiteko epea bukatu aurretik.

Bi. Bat atal horretan aipatutako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau-hastea izango da, eta diru-isun finkoarekin zehatuko da: 12.000 euro, ordezkaria izendatu ez bada; 6.000 euro, ordezkaria izendatu arren, izendapen hori Zerga Administrazioari jakinarazi ez bazaio.

Atal honetan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

Hiru. Edonola ere, foru arau honen 2. artikuluko Bat ataleko b) letran aipatzen diren ez-egoiliarren ondasun edo eskubideen gordailuzainak edo kudeatzaileak zerga honi dagokion zerga-zorra ordaintzeko erantzukizun solidarioa izango du, bere gordailupean edo kudeaketaren pean dituen ondasun edo eskubideak direla-eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 40. artikuluan zehazten denaren arabera.

9. artikulua. Ondare-elementuen titulartasuna.

Bat. Ondasun eta eskubideak haien titular diren zergadunei eratzikiko zaizkie, kontuan izanik, batetik, zein diren titulartasun juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauak eta, bestetik, zein diren zergadunek eurek ekarritako frogak nahiz Administrazioak berak aurkitutakok.

Ondasun-eskubideen titulartasuna nori dagokion erabakitzeko, titulartasun juridikoari buruzko arauak aplikatuko dira, bai ezkontzaren edo (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikotearen ekonomi araubidea arautzen duten xedapenetan jasotakoak, bai eta familiako kideen arteko ondare-harremanei aplikatu beharreko legedia zibileko manuetan jasotakoak ere.

Ezkontza baten edo (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako) izatezko bikote baten ekonomi araubidea arautzen duten xedapen eta itunekin bat etorriz, ezkontzako edo izatezko bikoteko kide bien ondasun-eskubide erkideen titulartasuna kideotako bakoitzari erdi bana eratzikiko zaio, baldin eta beste partaidetza-kuotaren bat bidezkotzen ez bada.

Ondasunen edo eskubideen titulartasuna behar bezala frogatuta ez dagoenean, zerga-erregistroren batean edo bestelako erregistro publikoren batean titular gisa ageri dena jo ahal izango du titulartzat Zerga Administrazioak.

Zamak, kargak, zorrak eta betebeharrak, berriz, aurreko paragrafoetan azaldutako arauen eta irizpideen arabera eratzikiko zaizkie zergadunei.

Bi. Testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsietan -ahalordea erabili bitartean-, gozamen-eskubiderik badago, aurreko atalean ezarritako arauak aplikatuko zaizkio gozamendunari.

Jabetza soilaren balioari dagokionez, edo gozamendunik egon ezean, arau honetan zehazten da zeren arabera tributatuak duten testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiek -ahalordea erabili bitartean-: Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitu zuen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko II. tituluari, hain zuzen.

Ezkontza osteko erkidegoa, Euskal Zuzenbide Zibilaren ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 140. artikuluan aurreikusten dena, testamentu-ahalordea baliatu zain dagoenean, ezkontide alargunak —edo izatezko bikotekideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikotea denean— berari dagokion erdiarengatik tributaturako du. Beste erdia kargatzeko aurreko bi paragrafoetan ezarritako arauak aplikaturako dira.

10. artikulua. Prezio geroratuan edo jabari-erreserbarekin eskuratutako ondasunak edo eskubideak.

Bat. Kontraprestazioa guztiz edo hein batean geroratuta eskuratzen diren ondasunak edo eskubideak direnean, ondare-elementu bati zergari buruzko arauak aplikaturaz ematen zaion balioa osorik egotziko zaio haren eskuratzailerari, eta hark bere zorretan sartuko du geroratutako kontraprestazioaren heina. Eskualdatzaileak, bere aldetik, bere ondareko eskubideetan sartuko du geroratutako kontraprestazioaren heinari dagokion kreditua.

Bi. Jabari-erreserbapeko ondasunen salmenta izanez gero, eta ondasun horren jabetza eskuratzailerari eskualdatzen zaion bitartean, eskuratzailerak zergaren sortzapen-egunera arte eman dituen zenbateko guztiak batuko dira haren eskubidea kalkulatzeko. Zenbateko horiek eskualdatzailearen zorrak izango dira, eta hari egotziko zaio ondasun horri zergari buruzko arauak aplikaturaz ematen zaion balioa.

IV. KAPITULUA. ZERGA-OINARRIA.

11. artikulua. Kontzeptua.

Bat. Zerga honen zerga-oinarria zergadunaren ondare garbiaren balioa da.

Bi. Ondare garbia kalkulatzeko, honako hauen arteko kenketa egingo da:

- a) Batetik, zergadunaren titulartasuneko ondasun-eskubideen balioa, hurrengo artikuluetako arauen arabera zehaztutakoa.
- b) Bestetik, edo izaera errealeko zamak eta kargak, baldin eta dagozkien ondasun-eta eskubideen balioa gutxitzen badute, edo zergadunak aurre egin behar dien zor eta betebeharrak pertsonalak.

Hiru. Aurreko atalean xedatzen dena gorabehera, ondare garbia zehazterakoan ez dira kenduko ondasun salbuetsiei dagozkien zamak eta kargak.

Lau. Tributatzeko betebeharrak erreala dagoenean, bakarrik izango dira kengarriak Espainiako lurraldean dauden edo bertan erabili ahal diren edo bertan bete behar diren ondasun-eskubideei dagozkien zamak eta kargak, bai eta ondasun horietan inbertituriko kapitalen ziozko zorrak ere.

12. artikulua. Ondasun higiezinak.

Bat. Hiri- edo landa-izaerako ondasun higiezinak honako zenbaki hauetan ezartzen denaren arabera jasoko dira:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden ondasun higiezinak badira: Oro har, haien gutxieneko balio eratzikigarriaren %50.

Landa-izaerako ondasun higiezienei dagokienez, ez baldin badute gutxieneko balio eratzikigarriarik, haien katastro-balioa hartuko da kontuan, baldin eta berrikusi edo aldatu egin bada. Balio hori eguneraturik ez badago, indarreko katastro-balioa bider hamar biderkatuko da.

- b) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dauden ondasun higiezinak badira, haien katastro-balioa.

- c) Ondasun higiezinak ez badaukate katastro-baliorik zergaren sortzapen-unean, edo atzerrian baldin badaude, haien eskuratze-balioaren ehuneko 50 konputatuko da, eta balio hori eguneraturik egon beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 45. artikuluan 2. zenbakian moneta- zuzenketari buruz aipatzen dituen koefizienteen arabera.

Bi. Ondasun higiezinak eraikitze-bidean daudenean, higiezin horretan zergaren sortzapen-egunera arte benetan inbertituriko zenbatekoaren %50 hartuko da ondare-balioztat, eta balio horri gehitu egingo zaio artikuluan honetan ezarritakoaren arabera orubearantz kalkulaturiko ondare-balioaren %50a. Jabetza horizontala izanez gero, tituluan finkaturiko ehunekoaren arabera zehaztuko da orubearen balioari dagokion zati proportzionala.

Hiru. Multijabetza kontratuak, denbora partzialeko jabetza-kontratuak edo antzeko formulak erabiliz eskuratutako ondasun higiezinaren gaineko eskubideak honako erregela hauen arabera balioztatuko dira:

- a) Higiezinaren titulartasun partziala badaukate, aurreko Bat ataleko erregelen arabera.
- b) Ez badaukate higiezinaren titulartasun partziala, ziurtagirien edo haiek ordezkatzeko dituzten tituluen eskuraketa-prezioaren %50aren arabera.

Eskuratze-prezioaren %50aren arabera balioztatuko dira, beren izaera edozein dela ere, honako lege honek jasotzen dituen eskubideak: 4/2012 Legea, uztailaren 6koa, turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltze-kontratuei eta truke-kontratuei eta zerga-arauei buruzkoa.

13. artikulua. Ekonomia-jarduerak.

Pertsona fisikoek ekonomia-jarduerei atxikirik dituzten ondasunak eta eskubideak kontabilitatean duten balioaz hartuko dira kontuan, aktiboaren eta pasiboaren arteko kenketa eginez, baldin eta kontabilitatea Merkataritzako Kodearen arabera eginda bada. Dena dela, ibilgailu, ontzi eta aireontzien kasuan ez da horrela egingo; izan ere, kasu horietan, ondasun horiei guztiei foru arau honen 12. eta 20. artikuluetan, hurrenez hurren, ezartzen dena aplikatuz lortzen den balioa erabiliko da, salbu eta kontabilitate-balioa handiagoa denean manu horiek aplikatuz ateratzen dena baino.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera joko dira ondasunak ekonomia-jarduerei afektatutzat. Foru arau horren 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan aipatzen diren aktiboak, berriz, erregela horiek aktiboan gastuak kengarritzat jotzen dituzten heinean joko dira afektatutzat.

Kontabilitaterik ezean, eta kontabilitatea ez bazaio lotzen Merkataritzako Kodeari, zergaren gainerako arauak aplikatzearen emaitza izango da balorazioa.

14. artikulua. Kontu korronteko edo aurrezki-kontuko gordailu agerikoak edo eperakoak.

Hirugarrenen konturakoak ez diren kontu korronteko edo aurrezki-kontuko gordailu agerikoak edo eperakoak, bai eta diruzaintza-kudeaketako kontuak nahiz finantza-kontuak eta antzerakoak ere, zergaren sortzapen-egunean duten saldoaz hartuko dira kontuan, baldin eta saldo hori urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoa baino txikiagoa ez bada, orduan azken hori aplikatuko baita.

Batez besteko saldo hori kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko ez zergadunaren ondarean jasota dauden ondasun-eskubideak eskuratu ahal izateko gordailuotatik ateratako funtsak, ez haren ondarean dauden beste kontu batzuetara aldatzeko ateratakoak, ez eta zorrak kitatu edo gutxitzeko atera direnak ere.

Mailegu edo kreditu baten ziozko zorraren zenbatekoa lehen lerroaldean aipatzen diren kontuetako batean sartu bada urteko azken hiruhilekoan, zenbateko hori ez da kontuan hartuko batez besteko saldoa zehazterakoan, eta, zor gisa ere, ez da kengarria izango.

15. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, zergaren sortzapen-unean duten negoziazio-balioaren arabera konputatuko dira, edozein izanik ere baloreon izendapena, ordezkaritza eta lorturiko etekinen izaera.

16. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzten duten gainerako baloreak.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzten duten beste baloreak (alegia, aurreko artikulukoak ez direnak) balio nominalaren arabera konputatuko dira, eta amortizazio- edo itzulketa-primarik egonez gero, prima horiek ere batuko zaizkio balio horri, edozein izanik ere baloreon izendapena, ordezkaritza eta lorturiko etekinen izaera.

17. artikulua. Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak.

Bat. Edozein motatako erakundeen kapital sozialeko edo funts propioetako akzioak edo partaidetzak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, zergaren sortzapen-unean duten negoziazio-balioaren arabera konputatuko dira; inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak, ordea, ez dira horrela konputatuko.

Bi. Kotizatzeke oraindik onartu ez diren akzio berriak harpidetzen direnean, merkatu antolatuetan kotizatzen duten entitate juridikoek jaulkitakoak, akzio horien balio hartuko da harpidetza-eparearen barruan titulu zaharren azken negoziazioa.

Hiru. Ordaindu gabe dauden kapital-zabalkuntzetan, aurreko arauekin bat etorritik balioztatuko dira akzioak, guztiz ordainduta baleude bezala, eta ordaindu gabe dagoen zatia zergadunaren zor legez sartuko da.

18. artikulua. Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzten duten gainerako baloreak.

Bat. Aurreko artikuluan aipatzen ez diren akzio eta partaidetzei dagokienez, azkenengo balantze onartuaren ondoriozko balio teorikoaren arabera egingo da haien balorazioa.

Nolanahi ere, zerga honen zerga-oinarria zehazteko, ondasun higiezin, bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreen, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen eta foru arau honen 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, itsasontzi eta aireontzien kontabilitate-balioaren ordezkari horiei guztiei foru arau honen 12., 15., 17. eta 20. artikuluen nahiz artikuluko honetako Bi atalaren arabera dagokien balioa erabiliko da, salbu eta kontabilitate-balioa handiagoa denean manu horiek aplikatuz ateratzen dena baino. Kontuan hartu behar da, halaber, zer balio duten zergadunak beste erakunde batzuetan duen partaidetzaren ondorioz zeharka dituen ondasun higiezin, bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten balore, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza, ibilgailu, itsasontzi eta aireontziak, haiei guztiei ere aplikatuko baitaie erregela hau, betiere beste erakunde horietako kapitalaren gaineko partaidetza %5 edo handiagoa bada. Horretarako, kontuan hartuko da bai zergadunak duen partaidetza, bai hauetako edozeinek duena: zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako izatezko bikotea bada), zergadunaren aurrekoak, ondorengoak edo bigarren graduako albo-ahaideak (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke), edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluen ezartzen denaren arabera zergadunari lotutako pertsona edo erakundetzat jotzen den pertsona edo erakunde bat.

Bi. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare-funtseko akzioak eta partaidetzak konputatzeko, kontuan hartuko da akzio-partaidetza horiek zergaren sortzapen-egunean duten likidazio-balioa. Horretarako, balantzean sartutako aktiboak haien legeria zehatzean jasotako arauekin bat etorritik balioztatuko dira, eta hirugarrenekiko betebeharrak kengarriak izango dira.

Hiru. Bazkideek edo kooperatiba-kideek kooperatibaren kapital sozialean duten partaidetzaren balioa zehazteko, kontuan hartuko da zer den ordaindutako ekarpen sozialek - nahitaezkoek edo borondatezkoek- kooperatibak onartutako azken balantzean zuten zenbateko osoa; egotzitako sozietate-galerak edo oraindik konpentsatzekoak egonez gero, galerok kendu egingo dira.

Lau. Artikulu honetan xedatzen dena betetzeko, akzio eta partaidetzen balioztapen egokiak jasotzen dituzten ziurtagiriak eman beharko dizkiete erakundeek bazkide, elkarteko kide edo parte-hartzaileei.

19. artikulua. Bizi-aseguruak eta aldi baterako errentak edo biziartekoak.

Bat. Bizi-aseguruak zerga sortzen den unean duten erreskate-balioaren arabera zenbatuko dira.

Hala ere, zergaren sortzapen-egunean hartzaileak ez badu erabateko erreskate-eskubidea baliatzeko ahalmenik, aseguruaren zenbatekoa izango da zuzkidura matematikoak egun horretan hartzailearen zerga-oinarrian duen balioa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru-kontratuei, heriotzaren edo baliaezintasunaren edo bestelako arrisku-berme osagarrien kasuan soilik jasotzen badituzte prestazioak.

Bi. Aldi baterako edo biziarteko errentak, hain zuzen diru-kapitala, ondasun higigarriak edo higiezinak ematearen ondorioz eratutakoak, zergaren sortzapen-datan duten kapitalizazio-balioaren arabera zenbatu beharko dira, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan pentsioak eratzeko ezartzen diren arau berak aplikatuta.

Hala ere, bizi-aseguru batetik aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen direnean, horiek artikulu honen lehenengo apartatuan ezarritako balioan zenbatuko dira.

20. artikulua. Bitxiak, luxuzko larrukiak eta ibilgailu, ontzi eta aireontziak.

Zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-balioa hartuko da aintzat hauek guztiak konputatzeko: bitxiak, luxuzko larrukiak, automobilak, bi edo hiru gurpileko eta 125 zentimetro kuboko edo gorako zilindrada duten ibilgailuak, atseden- edo kirol-ontziak, hegazkinak, hegazkin txikiak, belaontziak eta gainerako aireontziak.

Merkatu-balioa zehazteko, zergaren sortzapen-egunean ibilgailu erabilientzat indarrean dauden balioztapen-taulak erabili ahal izango dituzte zergadunek. Taula horiek Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onesten ditu, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako zein Oinordetza eta Dohaintzen Zergarako.

21. artikulua. Arte-objektuak eta antigoaleko objektuak.

Bat. Arte-objektuak edo antigoaleko objektuak konputatzeko, objektuok zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-balioa hartuko da aintzat.

Bi. Foru arau honetako 5. artikulua lehenean zehazten diren zenbakitik bosgarrenera artean jasotzen diren salbuespenak gorabehera, honako hauek hartuko dira arte-objektutzat eta antigoaleko objektutzat:

- a) Arte-objektuak: pinturak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, litografiak eta antzeko beste lan batzuk, baldin eta jatorrizkoak badira.
- b) Antigoaleko objektuak: ehun urte baino gehiago duten ondasun higigarriak (baliagarriak zein apaingarriak), baina arte-objektuak ez direnak, baldin eta azken ehun urteotan ez badira aldatu ondasunon jatorrizko ezaugarri nagusiak, aldakuntzak edo konponketak direla bide.

22. artikulua. Eskubide errealak.

Gozamen-eskubide errealak eta jabetza soila Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira; hala nahi izanez gero, kasuan kasuko ondasunari foru arau honetako arauekin bat esleitu zaion balioa hartuko da erreferentzia moduan.

23. artikulua. Administrazio-emakidak.

Jabari edo titulartasun publikoko zerbitzuak edo ondasunak ustiatzeko administrazio-emakidak, euren iraunaldia gorabehera, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira.

24. artikulua. Jabetza intelektual eta industrialaren ondoriozko eskubideak.

Jabetza intelektual eta industrialaren ondoriozko eskubideak, hirugarren batengandik eskuratutakoak badira, eskuraketa-balioaz sartu beharko dira eskuratzailaren ondarean, foru arau honetako 13. artikuluan ezartzen dena gorabehera.

25. artikulua. Kontratuen aukerak.

Kontratuen aukerak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergan ezartzen denaren arabera balioztatuko dira.

26. artikulua. Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasunak eta eskubideak.

Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun-eskubideon kasuan, zergadunari eratzikigarriak badira, zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-prezioa izango da ondasun-eskubideon balioa.

27. artikulua. Zorren balioztapena.

Bat. Zorren balioa zergaren sortzapen-egunean duten balio nominala izango da, eta behar bezala ziurtaturik daudenak bakarrik izango dira kengarriak.

Bi. Honako hauek ez dira kengarriak:

- a) Salbuetsitako ondasunak edo eskubideak eskuratzeko harturiko zorrak. Salbuespena partziala denean, zorren zati proportzionala izango da kengarria, hala badagokio.
- b) Bermaturiko zenbatekoak, harik eta abal-emailea zorra ordaintzera behartuta egon arte, hots, kobratzeko eskubidea zordun nagusiaren aurka erabili eta hark ordaindu ez duenera arte. Betebehar solidarioa egonez gero, abalaturiko zenbatekoak ez dira kengarriak izango, harik eta eskubidea abal-emailearen aurka erabiltzen ez den arte.
- c) Ondasun baten eskuraketako prezio geroratua bermatzen duen hipoteka, nahiz eta prezio geroratua edo bermaturiko zorra kengarriak izan.

Hiru. Ezein kasutan ez dira kengarri izango ondasunak edo eskubideak eskuratzeko harturiko zorrak, zor horrek ondasun-eskubideoi zerga honen arauen arabera dagokien balioa gainditzen duen zatian.

28. artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.

Zerga-oinarria zehazteko, oro har, zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliko da.

Zergei buruzko Foru Arauko 51. artikuluan jasotzen diren inguruabarretako bat gertatzen bada, zerga-oinarrien zeharkako zenbatespen metodoa aplikatuko da.

29. artikulua. Peritu-tasazioa.

Zergei buruzko Foru Arauaren 128. artikulua aipatzen duen peritu-tasazio kontrajarria bakarrik aplikatu dakieke foru arau honetako 20, 21 eta 26. artikuluetan aipatzen diren ondasun-eskubideei, salbu eta foru arau honetako 20. artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoa erabiltzen denean.

V. KAPITULUA LIKIDAZIO-OINARRIA.

30. artikulua. Likidazio-oinarria.

Zerga-oinarriari gutxieneko salbuetsia kenduko zaio: 800.000 euro, hain zuzen.

VI. KAPITULUA. ZERGAREN SORTZAPENA.

31. artikulua. Zergaren sortzapena.

Zergaren sortzapena urte bakoitzeko abenduaren 31n gertatuko da, eta zergadunak egun horretan bere titulartasunpean duen ondarean izango du eragina.

VII. KAPITULUA. ZERGA-ZORRA.

32. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarria eskala honetako tasen arabera kargatuko da:

Likidazio-oinarria kopuru honetaraino (euroak)	Kuota (euroak)	Likidazio-oinarriaren gainerakoa, kopuru honetaraino	Aplikatzeko tasa (portzentajea)
0,00	0,00	800.000,00	%0,20
800.000,00	1.600,00	800.000,00	%0,60
1.600.000,00	6.400,00	1.600.000,00	%1,00
3.200.000,00	22.400,00	3.200.000,00	%1,50
6.400.000,00	70.400,00	6.400.000,00	%1,75
12.800.000,00	182.400,00	Hortik gorakoak	%2,00

33. artikulua. Kuota osoaren muga.

Bat. Betebehar pertsonalaren zioz zergaren pean dauden zergadunen kasuan, zerga honetako kuota osoaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuota osoaren batura ezingo da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga-oinarriaren %65 baino handiagoa. Horretarako:

- Aurreko kalkulu hori egiteko, ez da kontuan hartuko zerga horren kuota osoaren zer zati dagokien haien izaera edo xedeagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak zergapetutako etekinik sortzeko gai ez diren ondare-elementuei.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaoinarriari batu behar zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa.

- c) Baina bi kuota horien baturak goian ezarri den muga gainditzen badu, murriztu egingo da zerga horren kuota, harik eta ezarri den mugara ekarri arte, baina murrizketa ezin da inola ere izan %75 baino handiagoa.

Bi. Familia-unitate bateko kideek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan baterako tributazioa egitea aukeratzen dutenean, familiako kideek aurreko zerga horretan sortutako kuota osoak batu behar dira zerga horren eta Ondarearen gaineko Zergaren baterako kuota osoari dagokion muga kalkulatzeko. Hala badagokio, egin beharreko murrizpena zergadunen artean hainbanatuko da, zerga honetan haietako bakoitzari dagokion kuota osoaren arabera, aurreko atalean xedatutakoa gorabehera.

Hiru. Artikulu honetan zehazten den kalkulua egin ahal izateko, zergadunari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan dagokion oinarriari batu behar zaizkio bai zergadunak jabetza soilean dituen ondasunen etekinen zenbatekoa, bai eta gozamina ere, honako kasu hauetan.

- a) Zergadunak honako hauetako bati esleitu badio: ezkontidea, izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako izatezko bikotea bada), aurrekoak, ondorengoak edo bigarren graduko albo-ahaideak (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke), edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikulua ezartzen denaren arabera pertsona edo erakunde lotutzat jotzen den pertsona edo erakunde bat.
- b) Zergadunak hirugarren bati eskualdatu badio, zerga honen sortzapenaren aurreko bost urteetan.

Kasu batean zein bestean, aurkakorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela-eta konputatu beharreko balioaren %5, foru arau honen 12-26. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Halaber, zergadunaren ondarean sartuko dira zergadunak zergaren sortzapena aurreko bost ekitaldietan dohain eskualdatutako ondasunak, salbu eta egiatzen denean dohaintza-hartzaileak Ondarearen gaineko Zergan benetan tributatu duela, ondasun horien balioaren besteko zenbateko bat dela-eta. Arau hori ez zaie aplikatuko irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga- pizgarriei buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren 19. artikuluan aipatzen diren erakundeen alde irabazi-asmorik gabe xedatu diren ondasunei.

34. artikulua. Atzerrian ordaindutako zergak.

Bat. Tributatzeko betebeharrak pertsonala badago, eta nazioarteko tratatuetan eta hitzarmenetan xedatutakoa gorabehera, bi zenbatekoren arteko txikiena kenduko da zerga honen kuotan, atzerrian dauden ondasunen edo bertan erabili daitezkeen edo bertan bete behar diren eskubideen zioz. Hauek dira zenbatekoak:

- a) Izaera pertsonaleko karga baten zioz atzerrian benetan ordaindutako zenbatekotik zerga honetarako kontuan hartzen diren ondare-elementuei dagokien zatia.
- b) Atzerrian kargaturiko likidazio-oinarriaren zatiari zerga honen benetako batez besteko tasa aplikatuz lortzen den emaitza.

Bi. Benetako batez besteko karga-tasa lortzeko, honako eragiketa hau egin behar da: eskala aplikatuz lortzen den kuota osoa zati likidazio-oinarria egin, eta, gero, koefiziente hori bider 100 biderkatu behar da. Benetako batez besteko karga-tasa bi hamartarrekin adieraziko da.

35. artikulua. Ondare-erantzukizuna.

Zerga honen ondorioz sortzen diren zorrak eta zehapenak -ha-lakorik badago- Kode Zibilaren 1365. artikuluan aipatutakoen parekotzat hartuko dira, eta, beraz, ezkontideen araubidea

ondasunen foru-komunikazioa bada, irabazpidezko ondasunetara edo irabazitako ondasunetara joko da zuzenean, Foru Aldundiaren aurrean halako zor edo zehapenengatik erantzuteko.

Goiko paragrafoan xedatzen dena orobat aplikatuko zaie 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratzten diren izatezko bikoteei, noiz eta bikoteak ezartzen duen ondare- eta ekonomia-araubideari Kode Zibileko arau hori aplikatu behar zaionean.

VIII. KAPITULUA. ZERGAREN KUDEAKETA.

36. artikulua. Aitorpena eta zerga-zorren diru-sarrera

Bat. Zerga honi dagozkion aitorpenak aurkezteko, baita zuzenketak edo administrazio-bideko errekursoak aurkezteko ere, zergadunek bitarte informatiko, elektroniko edo telematikoak erabili beharko dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte, erregelamenduz ezarritakoa betez. Aitorpena aurkezten dutenean, behar diren datuak eman beharko dituzte Zerga Administrazioak tributubetebeharraren zenbatekoa zehatz dezan behin-behineko likidazioa baten bidez. Halaber, ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Zehazki, ekonomia-jardueri dagozkien ondasunak, eskubideak eta zorrak eta haien balioa jaso behar dituzte aitorpenean. Orobat jaso behar dituzte Foru Arau honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera moduren batean edo bestean salbuetsirik gelditzen diren partaidetzak eta haien balioaren zatia.

Halaber, aitorpenean jaso behar dituzte berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, Foru Arau honetako 5. artikuluko 12. eta 13. apartatueta xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenak edo zerga honen zerga-oinarria murrizteko eskubidea ematen dutenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluan xedatutakoa gorabehera, zergadunak zerga honen behin-behineko likidazioan ezartzen den zerga-zorra sartu beharko du, erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako. Ezin izango da zatikatu zerga-zor horren ordainketa.

Zerga-zorra ordaintzeko, ondasun edo eskubideak eman ahal izango dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 58.2 artikuluan zehazten diren baldintzetan.

Bi. Zergadunak aitorpena aurkeztu baino lehen, Ogasun eta Finantza Sailak aitorpen-zirriborro bat jarriko du zergadunaren eskura Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, administrazioak dituen datuak, aurrekariak edo bestelako elementuak kontuan hartuta.

Aitorpen-zirriborroa sortzeko eta horretarako bakarrik, erregelamendu bidez ezarritako kasuetan, Zerga Administrazioak parametro batzuk erabili ahal izango ditu emaitza lortzeko, eta zergadunak aldatu ahal izango ditu aitorpenean.

Zergadunak uste badu aitorpen-zirriborroak ez duela ondo jasotzen bere tributuegoera zerga honi dagokionez, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz ezartzen den prozedurarekin bat etorruta.

Hiru. Ogasun eta Finantza Sailak dirua ordaintzeko edo zero emaitza duen aitorpen-zirriborro bat ematen duenean, zergaduna proposamenarekin ados badago, modu espresuan adierazi beharko du adostasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, aitorpenak aurkezteko borondatezko epea amaitu baino lehen.

Aurreko kasuan, betetzat joko da zergadunak zerga honen aitorpena aurkezteko duen betebeharra.

Zergadunak ez badu modu espresuan adierazten ados dagoela, aitorpena aurkeztu beharko du borondatezko epearen barruan eta zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta

dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarra ematen denean zergadunak aitorpenik aurkeztu ez badu, ez betetzat joko da zerga honi dagokion aitorpena aurkezteko betebeharra.

Lau. Zerga honegatik aitorpena aurkeztu behar duen zergadunak, aitorpen-zirriborrorik ez badu, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aurkeztu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarra ematen denean zergadunak aitorpenik aurkeztu ez badu, ez betetzat joko da zerga honi dagokion aitorpena aurkezteko betebeharra.

37. artikulua. Autolikidazioa aurkeztu behar dutenak.

Autolikidazioaren ondorioz zerga ordaindu behar duten zergadunek aurkeztu behar dute autolikidazioa. Dena dela, nahiz eta zerga ordaindu beharrik izan ez, zergadunek beti aurkeztu beharko dute autolikidazioa, baldin eta beren ondasun-eskubideen balioa, zerga honetako arauen arabera zehaztuta, 2.000.000 euro baino handiagoa bada.

IX. KAPITULUA. JURISDIKZIO-ORDENA.

38. artikulua. Jurisdikzio-ordena.

Bide ekonomiko administratiboa agortu ondoren, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da foru arau honetan aipatzen diren gaitako edozein dela-eta Administrazioaren eta zergadunen artean gerta daitezkeen izatezko eta zuzenbidezko eztabaidak ebazteko gai den bakarra.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehenengoa. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauari buruzko aipamenak.

Ordenamendu juridikoan honako bi arau hauei buruz egiten diren aipamenak foru arau honi beroni ere eginikotzat joko dira: 11/1991 Foru Araua, abenduaren 17koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa, eta 4/2011 Foru Araua, abenduaren 28koa, 2011rako eta 2012rako Ondarearen gaineko Zerga ezartzen duena.

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren aldaketa.

Bat. Beste era batera berridatzi da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 43.2.c) artikuluko lehen lerroaldea, eta honela geratzen da:

«c) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan aipatutako enpresa edo partaidetzen dohaineko eskualdaketetan, ezkontide, izatezko bikotekide, aurreko edo ondorengo ahaideen alde egiten direnean, honako baldintza hauek betetzen badira:».

Bi. Beste era batera berridatzi da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 43.2.d) artikuluko lehen lerroaldea, eta honela geratzen da:

«d) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan aipatzen diren enpresen edo partaidetzen eskualdaketetan, enpresako langile baten edo batzuen alde egiten direnean, baldin eta aurreko letran ezarritako baldintzak betetzen badira, eta kontuan hartuta ondorengo espezialitateak:».

Hirugarrena. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bateginaren aldaketa; testu bategin hori 1993ko ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen.

Aldaketa bat egingo da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bateginean (1993ko ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen testua), eta, beraz, honela geratuko da haren 19. artikuluko 8. zenbakiko lehen lerroaldea:

«8. Banako enpresaren bat, lanbide-negozioren bat edo erakundeen partaidetzak «mortis causa» eskuratzen badituzte hildakoaren hirugarren mailara arteko alboko ahaideek, eta eskuraketari Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluko Bi atalean araupetutako salbuespena aplikatu ahal bazaio, orduan Zergaren oinarriaren %95eko txikipena aplikatu ahal izango dute, baldin eta ondorengorik edo adoptaturik ez badago eta eskuraketak bere hartan irauten badu hurrengo 5 urteetan, eskuratzailea hori baino lehen hil ezean.».

Laugarrena. Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributu-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitu zuen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren aldaketa.

Aldatu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitu zuen 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko 11. artikulua, eta honela geratuko da idatzita:

«11. artikulua.-Ondarearen gaineko Zerga.

1. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 9. artikulua 2. zenbakian aipatzen diren jarauntsien ondare garbiari, hots, testamentu-ahalo-rdearen bidezko jarauntsien ondare garbiari -ahalorea erabili bitartean- zerga honi buruzko Foru Arauan bildutako manuak aplikatuko zaizkio, artikulua honetako hurrengo paragrafoetan biltzen diren berezitasunekin.

2. Testamentu-ahalorearen bidezko jarauntsiak -ahal-ordea erabili bitartean- zerga ordaindu beharko du, eta, era berean, foru arau honetan, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezartzen diren gainerako betebeharrak bete beharko ditu.

3. Betebehar pertsonalaren zioz zergaren pean dauden zergadunen kasuan, zerga honetako kuota osoaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuota osoaren batura ezin izango da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga-oinarriaren %65 baino handiagoa. Horretarako:

a) Aurreko kalkulu hori egiteko, ez da kontuan hartuko Ondarearen gaineko Zergan zer zati dagokien haien izaera edo xedeagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak zergapetutako etekinik sortzeko gai ez diren ondare-elementuei.

b) Gainera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 36. artikuluko 2. eta 3. zenbakiek hipzide dituzten dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa gehituko zaio.

c) Baina bi kuota horien baturak goian ezarri den muga gainditzen badu, Ondarearen gaineko Zergaren kuota murriztuko da, harik eta ezarri den mugara ekarri arte, baina murrizketa ezin da inola ere izan %75 baino handiagoa.

Atal honetan zehazten den kalkulua egin ahal izateko, testamentu-ahalorearen bidezko jarauntsiari -ahalorea erabili bitartean- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan dagokion oinarriari batu behar zaizkio bai jarauntsi horrek jabetza soilean dituen ondasunen etekinen zenbatekoa, bai eta gozamina ere, honako kasu hauetan.

a) Kausatzaileak edo komisarioak honako hauetako bati esleitu badio: ezkontidea, izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako izatezko bikotea bada), aurrekoak, ondorengoak edo bigarren graduko albo-ahaideak (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke), edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 16. artikulua ezartzen denaren arabera pertsona edo erakunde lotutzat jotzen den pertsona edo erakunde bat.

b) Kausatzaileak hirugarren bati eskualdatu badio, zerga honen sortzapenaren aurreko bost urteetan.

Kasu batean zein bestean, aurkakorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela-eta konputatu beharreko balioaren %5, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 12-26. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

Halaber, testamentu-ahalorearen bidezko jarauntsiarren -ahalorea erabili bitartean- ondarean sartuko dira kausatzaileak zergaren sortzapena aurreko bost ekitaldietan dohain eskualdatutako ondasunak, salbu eta egiaztatzen denean dohaintza-hartzaileak Ondarearen gaineko Zergan benetan tribututzen duela, ondasun horien balioaren besteko zenbateko bat dela-eta. Arau hori ez zaie aplikatuko, ordea, 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 18. artikuluan aipatzen diren erakundeei dohain emandako ondasunei (arau hori

irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da).».

Bosgarrena. Ondare higiezinaren balorazioa 2013an, 2014an eta 2015ean.

Foru arau honen 12. artikulua ondoren azaltzen den moduan geratuko da idatzirik 2013., 2014. eta 2015. urteetarako:

«12. artikulua.-Ondasun higiezinak .

Bat. Hiri- edo landa-izaerako ondasun higiezinak honako zenbaki hauetan ezartzen denaren arabera jasoko dira:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden ondasun higiezinak badira:

Oro har, haien gutxieneko balio eratzikigarriaren %25. Landa-izaerako ondasun higieziinei dagokienez, ez baldin badute gutxieneko balio eratzikigarriak, haien katastro-balioa hartuko da kontuan, baldin eta berrikusi edo aldatu egin bada. Balio hori eguneraturik ez badago, indarreko katastro-balioa bider bost biderkatuko da.

b) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dauden ondasun higiezinak badira, haien katastro-balioaren %50.

c) Ondasun higiezinak ez badaukate katastro-baliorik zergaren sortzapen-unean, edo atzerrian baldin badaude, haien eskuratze-balioaren ehuneko 25 konputatuko da, eta balio hori eguneraturik egon beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 45. artikulua 2. zerbakian monetazuzenketari buruz aipatzen dituen koefizienteen arabera

Bi. Ondasun higiezinak eraikitze-bidean daudenean, higiezin horretan zergaren sortzapen-egunera arte benetan inbertituriko zenbatekoaren %25 hartuko da ondare-baliozat, eta balio horri gehitu egingo zaio artikulua honetan ezarritakoaren arabera orubearentzat kalkulaturiko ondare-balioaren %25a. Jabetza horizontala izanez gero, tituluan finkaturiko ehunekoaren arabera zehaztuko da orubearen balioari dagokion zati proportzionala.

Hiru. Multijabetza kontratuak, denbora partzialeko jabetza-kontratuak edo antzeko formulak erabiliz eskuratutako ondasun higiezinaren gaineko eskubideak honako erregelaren arabera balioztatuko dira:

a) Higiezinaren titulartasun partziala badaukate, aurreko Bat ataleko erregelaren arabera.

b) Ez badaukate higiezinaren titulartasun partziala, ziurtagirien edo haiek ordezkatzeko dituzten tituluen eskuraketa-prezioaren %25aren arabera.

Eskuratze-prezioaren %25aren arabera balioztatuko dira, beren izaera edozein dela ere, honako lege honek jasotzen dituen eskubideak: 4/2012 Legea, uztailearen 6koa, turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor-pro-dukтуak eskuratzeko kontratuei, birsaltze-kontratuei eta truke-kontratuei eta zerga-arauei buruzkoa.».

Seigarrena. Mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertain berri edo sortu berrietan egindako inbertsioak.

...

Lehenengoa (sic). Aldaketa terminologikoa

Foru Arau honetan autolikidazioaz hitz egiten denean aitortzen ari dela ulertuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.

Bat. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, derogaturik geldituko dira:

- a) 4/2011 Foru Araua, abenduaren 28koa, 2011rako eta 2012rako Ondarearen gaineko Zerga ezartzen duena.
- b) 17. artikuluko 7. zerbakia honako foru dekretu honetan: 3/1993 Foru Dekretu Arauemailea, ekainaren 22koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onetsi duena.
- c) 60. artikuluko 9. zerbakia honako foru arau honetan: 1/2011 Foru Araua, martxoaren 24koa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa.

- d) Abenduaren 21eko 207/1999 Foru Dekretua, enpresarioen eta profesionalen jarduketek eta erakundeetako partaidetzek, Ondarearen gaineko Zergari dagozkion salbuespenei heltzeko, bete behar dituzten beharkizunak eta baldintzak zehazten dituena.

Bi. Era berean, derogaturik geldituko dira foru agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

«Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean foru arau hau, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.